

## HARREMANAK

Guk bezeroarekin sortu nahi dugun harremana pertsonala izango da; hau da, laguntza pertsonala emango zaie. Baina online webgunean automatizatua izango da, nahiz eta furgoneta hartzera dendara etorri beharko duen. Horregatik, konbinazio bat egitea erabaki dugu: zerbitzu automatizatua webgunearen bitartez, bezeroek beren eskabideak egin ahal izan ditzaten, alokatzeko denda fisikora joan behar izan gabe; baina dendara joateko aukera ere izango da eta horrela harreman pertsonala aurrera eraman ahal izango da.

